

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **3h 10 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 25 galdera. Balio berekoak (0,8 puntu). Gainditzeko, 13 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.800 hitz gehienez. 	60-70 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	120 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, **zuzen da**.

1. ariketa

Identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Aukeran ematen zaizkizun testu zatitako bat sobera dago.

POLITIKA PUBLIKOEN EBALUAZIO ZEHAZTUGABEEN ARRISKUAK

80ko hamarkadaren amaieran, programa baten ondorioak ezagutzeko ebaluazioa egiteko eta, horretatik abiatuta, balizko hobetze-alderdiak bilatzeko beharraz hitz egiten hasi ginen gure autonomia erkidegoan. König-ek (1989) Estatuaren programen ebaluazioari buruzko artikulu batean landu zuen gai hori, hurrengoak argitzeko asmoz: Zein dira arazo baten analisiaren emaitzak eta zein dira horren kausak? Zer faktore alda daitezke? Aplikagarritasun komuneko zer metodorekin lor daitezke helburuak osorik edo partzialki, baina arrazoizko mailan? Zein dira jarduteko tresnarik egokienak, herritarrengan eta ekonomian eragiten duten ahalegina, karga eta aurrekontu publikoen eraginkortasuna, kostua eta gastua kontuan hartuz? Eta zein dira baliabiderik onenak arauetan duten eragina, albo-ondorioak, hartzaileek eta aplikatzaileek ulertzen eta onartzen dutena aintzat hartuz?

1 Ebaluazioa kudeaketa publikoaren zerbitzurako tresna gisa ez erabiltzearen arrazoen artean aipatzekoa da ebaluazioaren kontzeptua bera zehatza ez izatea. Hori dela-eta, funtsezkoa da ebaluazioarekin lotutako gaizki ulertuak argitzea, kudeatzaile eta arduradun politikoen artean errezelarik ez pizteko eta, are gehiago, haien babesa eta bultzada jasotzeko.

Shaw-ek (2003) *Ebaluazio kualitatiboa* lanean azaldu zuen bezala, ebaluazioak ez du helburu bakarra edo, beste era batera esanda, *ebaluazio* terminoak, zentzu zabalean, askotariko adierak ditu: erantzukizuna, administrazioak gauzatutako jardueraren kontuak ematea, gardentasuna, kontrola, errendimendua, politiken egokitasuna, erabakiak hobetzeko tresna, erreminta operatiboak eta baliabideak esleitzea. **2**

Hala, ebaluazioaren helburua ez da politika publikoen egokitasuna eta haiek kudeatzeko moduak balioztatzea, baizik eta beharrezko analisi bat egitea, beste politika publiko batzuk

formulatzeko, erabakitzeko eta kudeatzeko.

3

Halaber, argi geratu behar du programen ebaluazioaren eta erantzukizun politikoa gauzatzearen edo kontuak ematearen arteko aldeak. **4** Dentek (1991) «El análisis de las políticas públicas en la práctica: El control de gestión en las administraciones regionales» artikuluan azaldu zuen bezala, parlamentuak exekutiboaren jardura kontrolatzeko bere tresnak izanda ere, baliteke exekutiboaren ebaluazio-lanak interesez jarraitzea.

Nahiz eta politiken kudeatzaileek pilotatu, arrazoi praktikoengatik eta objektibotasun- eta sinesgarritasun-arrazoiengatik, egokiena dirudi ebaluazioak mistoak izatea (kanpoko ebaluazio-taldeekin lankidetzan) eta politikarekin edo programarekin zerikusia izan duten askotariko eragileek parte hartzea (talde objektiboak, azken onuradunak, hirugarrenak).

5

Interes horiek beharrezkoak dira, zalantzarik gabe, baina alde batera uzten dituzte askotan beste alderdi batzuk, kualitatiboak kasu.

6

Shaw-ek (2003) esan zuenez, ebaluazio-metodologia ez dute metodoek bereizten, erantzun nahi diren galderek eta sustatzen diren balioek baizik.

Bestalde, ebaluazioek gastua eragiten dute, landa-lanek bezala, eta haien kostua programen aurrekontuetan jaso beharko lirateke. **7** Era berean, ebaluatze lanari jarraipena emateko lagungarria izango litzateke programak sortzeko araudian ebaluatze beharra jasotzea (Sunset Legislation), sistematikoki egiten den arte behintzat. **8** Horretarako, herri-ekintza hobetzeko ekar ditzakeen abantailak jakinarazi behar dira, baita ebaluazioen ezak politika eta programa politikoetan eragiten dituen kostuak ere, eta ez ekonomikoak soilik.

ETXEBESTE, Egoitz. *Elhuyar*, 2017ko ekaina. Egokitua.

1. ariketa. Txertatu testu zatia

OHARRA: Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera dago.**

- A. Horregatik, kudeaketa publikoa hobetzeko tresna gisa planteatuz gero, ez luke errezelarik sortu behar.
- B. Modu berean, ebaluazioaren munduan, fidagarritasunaren, baliozkotasunaren, neurketen eta metodologia kuantitatiboaren berezko beste interes batzuen gaineko interesa da nagusi.
- C. Programa baten ebaluazioa aurrekontuan jasotzen ez bada, hartaz arduratzen diren kudeatzaileen asmo onaren (gogoak, denbora, prestakuntza...) esku geratuko da ebaluazioa gauzatzea edo baliabideak bilatzea.
- D. Hogeita hamar urte igaro dira eta ebaluazioak bere bidea egin du Euskadiko herri-administrazioen kulturen eta jardunean, baina oraindik ez da etengabeko hobekuntzako elementu gisa sistematikoki erabiltzen.
- E. Horregatik guztiagatik, ebaluatzeko kultura gehiago zabaldu beharra dago.
- F. Har dezagun parlamentua adibide gisa.
- G. Labur esanda, ebaluazio bakoitzaren erronkek eta mugek ezarri beharko dute metodologiaren arteko oreka.
- H. Laburbilduz, informazioa biltzeko sistema berria sortu behar dugu, hainbat erakundetako egoera eguneratzeko, eta gauzatutako ekintzen segimendua eta hedapena erraz eta arin egin ahal izateko.
- I. Azken zentzu horrekin izango du ebaluazioak erabilgarritasunik eta operatibitate handiena, eta jasoko ditu eragozpen gutxiago eta onarpen handiagoa.

■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	1	2	3	4	5	6	7	8
Testu zatiak								

Soberakoa	
-----------	--

OHARRA: Soberako aukera hau ez da jaso behar erantzun-orrian.

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

SAREAK SUTAN

Orain hilabete gutxi eman zuen argitara Juan Soto Ivars-ek *Arden las redes* saiakera interesgarria. Izenburuak azpititulu adierazgarria du: «*La poscensura y el nuevo mundo virtual*». George Orwellen aipu batekin hasten da liburua: Jendearen gehiengoari adierazpen-askatasuna axola bazaio, adierazpen-askatasuna egongo da, are legeek jazartzen badute ere». Soto Ivarsek, ordea, buelta ematen dio esaldiari, eta are kezkarriagoa den beste bat jartzen du mahai gainean: «Jendearen gehiengoari ez bazaio axola adierazpen-askatasuna, adierazpen-askatasuna bertan behera geratuko da, are legeek baimentzen badute ere».

Azken urteotan teknologia berrien eskutik ezagutu dugun fenomeno bizi-bizi baten gaineko saiakera-liburua duzue hau. Jada ez dugu eremu pribatua eta publikoa, onlinea eta offlinea, bereizten, eta, ondorioz, zailagoa da gure adierazpenen ondorioa neurtzea. Ortegak deskribatutako masa hura bihurtu da orain protagonista. Internet askatasunaren konkista gorena omen da, komunikazioaren paradigma, baina ez da agora bat, nahaspila uniforme bat baizik, non, tamalez, apurka-apurka erresumina nagusitzen ari den.

Demokrazia berriaz eta askatasun absolutuaz ere hitz egiten da. Zentsorearen irudia eta zentsura bera ia desagertu direla aipatzen da, baina zertaz ari gara zehazki inor ez bada inoiz isiltzen? Lehen, botere politikoa arduratzen zen zentsuraz, eta zeregin horretara emanak bizi ziren hainbat funtzionario. Gaur egun, postzentsuraren garaian, boterea ez eta jendea da zentsuraren prozesuan zuzenean parte hartzen duena. Horren harira, Alex Moira poetaren aipu bat dakar egileak: «gizarte infantilizatu batean Twiter da kontakatiluen erresuma». Azken batean, gizarte bera da adierazpen-askatasuna jasaten ez duena. Adierazpen-askatasuna eta segurtasuna aurrez aurre jartzen baditugu, litekeena da segurtasuna garaile ateratzea. Datuak ere badaude hori hala dela sinesteko.

Duela berrehun urte, irainduak soka eskuan ateratzen ziren herriko plazara bekataria zigortzera. Gaur egun, jazarpena erosoagoa da, eta etxetik edo

nonahitik egin daiteke, mugikorra aldean. Neurri handi batean, esan daiteke, zuzentasun politikoak eragiten duela zentsura. Berehala sentitzen gara irainduak, eta kolpe dialektiko hori mila aldiz biderkatuta itzuli nahi izaten dugu, ustezko arerio hori txiki-txiki egiteko. Gauzak arrazionalki pentsatzeko bainoago, joera handiagoa dugu neurrigabeko sentimentalkerian erortzeko. Horren ondorioz, beldur gara esango dugun horrek sarean gure aurkako kanpaina basati bat abian jarriko ote duen. Eta denok dakigu kanpaina edo sorgin-ehiza moduko horiek ondorio zehatz eta nabarmenak izan ditzakeela, sareko purrustadaz harago doazenak eta kultur gerran erortzen direnak: liburu bat debeka dezakete, norbaitek lana galtzea lor dezakete, baita epaitegian bukatzea ere, eta abar. Eta nork ateratzen du etekin handiena mezu uholde pozoitu horretatik? Ez kaltetuak, ezta irainduak ere, baizik eta Google bezalako bilatzaile batek, zeinetara jotzen duen jendeak polemikaren informazioaren bila.

Bitxiki, iraina egin duenak barkamena eskatzen badu, orduan eta gupidagabeagoa da jendaila harekin. Garbi dago: helburua ez da gauzak konpontzea, suntsipena baizik. Erruduna seinatzen dugu, desesperatuta baikaude gure errugabetasuna frogatzeko.

Soto Ivarsek zenbait kasu aipatu eta aztertzen ditu: Migoya, Frisa, Vigalondo, Cremades... Eskertzekoa da, bestalde, egileak erakusten duen objektibotasuna, bere analisisetan ezkerak zein eskuinak egindako gehiegikeriak jartzen baititu mahai gainean, eta azpimarratzen du ia ezinezkoa dela sareen gaineko eztabaida arrazionala. Gero eta handiagoa da zarata eta buila. Astakeria gero eta handiagoak esaten ditugu, baita adierazpen-askatasunaren izenean ere. Hala ere, benetako adierazpen-askatasuna pentsatzeko askatasunetik dator. Eta iraina eta umiliazioa nagusi diren bitartean, pentsamendu askea kikildu egiten da.

GORROTXATEGI, Aritz. *El correo*, 2017ko irailaren 2a. Egokitua.

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

9. Zer ematen du aditzera Juan Soto Ivars-ek bere azken liburuan?

- a) Jendartearen interesak gorabehera, legeena dela beti adierazpen-askatasuna zedarrizteko azken hitza.
- b) Legeek kontrakoa esan arren, norbanakoaren erabakia gehiengoaren iritzia baldintzatzen duela.
- c) Legeek esaten dutena esaten dutela, gehiengoak adierazpen-askatasunean interesa galduz gero, baztertuta geratuko dela.

10. Zer ekarri dute teknologia berriek idazlearen arabera?

- a) Erabilera-eremuari erreparatu ezean, nekez aurreikus daitekeela gure adierazpenen ondorioa.
- b) Ondorioak argitu bitartean, jendea ezberdin aritu beharko zela eremu publikoan eta pribatuan.
- c) Berdin dihardugula eremua publikoa zein pribatua izan, ondorioez jabetzeke.

11. Sotoren hitzetan, zer bilakatu da sarea?

- a) Nahigabez josten ari den baliabidea.
- b) Jendarteak konkistatu nahi duen komunikazio-eremua.
- c) Sentimendu kontrajarriz beteriko plaza.

12. Zer esaten da testuan zentsurari buruz?

- a) Funtzionarioek hartu behar izan dutela bere gain eginbide horren ardura.
- b) Desagertutzat ematetik eskuz aldatzera pasa dela.
- c) Zentsore berrien xedea beste zentsura mota bat ezartzea dela.

13. Soto jaunaren hitzetan, zein da jendartearen jarrera adierazpen-askatasunari dagokionez?

- a) Mesfidati dago, ez duelako eskubidea bermatuta ikusten.
- b) Ez du lehenesten, nahiz eta informazioaren jabe izan nahi duen.
- c) Eskumena bermatuta izateak segurtasuna ematen dio.

14. Zer portaera gaitzesten du?

- a) Gainerakoen onespina edukiko duela jakinda, arrazoirik gabe mina eragin nahi izatea.
- b) Zentzuzko jokaera hurkoaren esku dagoela pentsatzea.
- c) Gauzak arrazoizko eran egin beharrean, gehiegikerietara jotzea.

15. Idazlearen esanetan, zer ondorio eragin dezake sarean daukagun jarrerak?

- a) Sareetan esango dugun horrek norbere irudia kaltetu ahal izatea.
- b) Adierazpen-askatasuna murriztu arren, norbera askeago sentitzea.
- c) Askatasunez mintzatzeak dituen ondorioak direla eta, ideiak partekatzeko beldurra izatea.

16. Zer atzematen da kaltetuen eta irainduen jokaeran?

- a) Elkar ulertu beharrean, iraindu duenak nahiago duela errua bestaldekoari egotzi.
- b) Iraindu duenak burua apalduz gero, litekeena dela kaltetuak errugabetzea.
- c) Kaltetuen eran jardunda, errazago frogatuko dugula errugabetasuna.

17. Zer hausnarketa egiten du artikulugileak, adierazpen-askatasunaren inguruan?

- a) Benetako adierazpen-askatasuna ez da lortuko, harik eta eztabaidetan sartzeari uzten diogun arte.
- b) Adierazpen-askatasuna lortuko bada, irainak alboratu, eta libre pentsatzea lortu behar da.
- c) Adierazpen-askatasunari balioa emateko, ezinbestekoa da adierazpenetan alderdi guztiak aintzatestea.

3. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ATERABIDERAKO ZENBAIT OINARRI

Bistan da fosiletan oinarrituriko sistema energetikoa atzean uzteko, erresistentzia politiko-ekonomiko erraldoiak gainditu beharko direla. Erraz ikusten da sistemak bere burua baino nahiago duela klima aldatu. Esaterako: nekez lortuko da ekonomiaren deskarbonizazioa, energia fosilek energia garbiek halako hamar subentzio eskuratzen badituzte. TTIPa aurrera eramanez gero, gaitzagoa izango da saihestea klima-aldaketarik hondagarriena, akordio horrek bide eman nahi baitie energia fosilen ustiatze harroagoari eta produktuen ozeano arteko joan-etorri biziagoari. Nekez lortuko da berotze moderatua, krisi ekonomikotik ateratzeko “*Let’s go shopping*” kantatzen badugu laringea urratzeraino; eta ezkertiar asko ari da soprano-lanetan. Nekazaritza industrialak isurtzen du gas guztien % 30 inguru, baina oraindik ez dugu planeta hoztuko lukeen hautu agroekologiko estrategikorik. Eta abar.

Euskal gizartean ahalegin handiak egin dira ekoefizientziaren eremuan. EAEko ekonomiari dagokionez, 2008an 1980an baino askoz energia gutxiago behar izan zen (% 80 gutxiago), aberastasun kantitate berbera lortzeko. Ondo. Baina adi, «Jevons Paradoxa» edo «errebotte-efektu» gisa ezagutzen den fenomenoarekin egingo dugu topo: 1980arekin alderatuta, aberastasun materialak halako 2,4 egin zuenez gora, osotara, 2008an ez genuen energia gutxiago kontsumitu, ezpada gehiago: per capita errentaren hazkundeak eta energiaren prezio erlatiboki txikiak 1985etik aurrera energiaren kontsumoan gorakada nabarmena eragin zuten; batez ere garraioan eta etxean, 1980tik 2008ra bikoiztu egin baita energiaren kontsumoa bi eremuetan. Bestalde, petrolotik gaserako euskal trantsizioak izan du zentzurik, baina herrialde gasista garela ahots goran ospatzeari etorkizun-ikuspegi informatuagoa falta zaio.

Batzuen iritzian, Europako ekonomiak erakutsi du hazkunde ekonomikoa kalte ekologikoetatik deslotu daitekeela: 1990-2014 urte bitartean, Barne Produktu Gordina % 46 hazi zen eta negutegi-efektuko gasen isurketak % 23 murriztu ziren (Olabe, 2016). Beraz, hazkundera eta klima

zaintzea bateragarriak al dira? Afari erromantikoa regetoi musikarekin uztartzea bezain nekeza dirudi; izan ere, Europak deslokalizatu egin du bere industriaren zati handia, inpaktuak eta isurketak beste lurralde batzuetara eramanez. Areago, Europaren ongizatea Txinaren eta beste herrialde batzuen esportazioarekin elikatzen da; eta, ondorioz, inportaturiko ondasunok barne hartzen dituzten isurketak kontabilizatu beharko liriateke. Aldagai horiek aztertuz gero, nekez esan liteke europarron ekonomiak eta bizierak isurketak gutxitu dituztenik.

Beraz, ikuspegi globaletik, nazionaletik zein Europakotik ikusita, aipatutako datuek gauza funtsezkoaz ohartarazten gaituzte: ez dirudi erremedioa orain arteko bide erreformista tradizionalen eskutik etorriko denik. Ez dirudi ildo horretatik gehiago eginez konponduko denik, aldaketa oinarritzkoak eragiteko gai ez diren eremu antzuan mantentzen baitira erantzunak. Orain arteko marko kontzeptualak (modernizazio ekologikoa, ekoefizientzia, hazkunde iraunkorra eta abar) ez dira gida onak klimaren arazoa konpontzeko. Gizarte-eredua sakonagotik berrikusi beharra dago; garapen-ereduak han-hemengo konponketa txiki batzuk baino gehiago behar ditu. Datuak eskuetan, ez da arrazoizkoa pentsatzea hona ekarri gaituzten izateko eta egiteko moduek aterako gaituztela atakatik. Ez dirudi ekonomia kapitalista global hedakorra gai denik berak sorturiko norabide hondagarria geldiarazteko. Norberaren burua engainatzea da pentsatzea klimarena konponduko dela ezer mamitsurik aldatu gabe makroan (sakon berrikusi gabe gaurko egitura eta dinamika ekonomikoak) eta mikroan (auzitan jarri gabe bizi-estiloak eta oparotasuna definitzeko moduak).

Izan, posible da 2050erako % 100 berriztagarria den energia-eredua sortzea, urte horretarako eraginez ekonomiaren erabateko deskarbonizazioa, eta, ondorioz, gizarte-aldaketa sakonak. Arazoa ez da teknikoa, politikoa baino. Erregai-fosilak erretzea lehen planoan jarri, fosilok berriztagarriekin ordezkatu eta, efizientziaren bidez asko aurreztearekin batera, energia eta material gutxiago

kontsumituko duten bizibideak eta ekonomiak behar ditugu sortu. Esan bezala, lur azpian utzi behar da erregai-fosilen % 80; eta, tira, zenbait inbertsio-funts, munduko ekonomia eta enpresa hasiak dira erregai-fosiletan desinbertitu eta berriztagarrietan inbertitzen.

Ez dago klimarena konpontzerik sistemak eta gizarteetako gehiengo sozialek produktibismoa salbatu, hazkunde etengabea gurtu eta bizitza onaren eredu gisa biziera kontsumista jartzea nahiago izanez gero. Klimak, iraunkortasunak, oro har, auto-mugatzea eskatzen du. Zereginik garrantzitsuena nahikotasunaren iraultza kulturala da. Hazkunde etengabearen oinarrituriko ekonomia eta klima zaintzea ez

dira bateragarriak. Datuak dira, ez ideologia. Eta ez dakit inoiz izan ote dugun hain denbora gutxi horrenbeste jenderengan horren finkatuta dagoen «hazkundera beti da ona» dogma aldatzeko, bere lekuan jarriz «hazkundera ekonomiaren aurkako bihurtu zaigu», hanka bikoon sostengu diren oinarri biofisikoak suntsitzen baititu. Minbiziaren irudiak ondo laburbiltzen du proiektu ilustratuaren deriba: zelulak hazteari ekin diote era desordenatuan, zelulon sostengu den organismoa suntsitzeraino eta, ezinbestean, zelulen beren heriotza eragiteraino.

AZKARRAGA, Joseba. Hemen, 2016koko apirila-ekaina. Egokitua.

3. ariketa. Aukeratu erantzuna

18. Testuaren sarreran esaten denaren arabera, zer hobesten du sistemak?

- a) Klima-aldaketa saihestuko bada, ekonomia-eredua eraldatzea.
- b) Klimaren aldaketa helburu duten erresistentzia politiko-ekonomiko erraldoiak zapaltzea.
- c) Ekonomia-eredu berria erdiestea baino, klima berau aldatzea.

19. Zer eragingo du sistemaren jarrerak?

- a) Hondamendi ekonomikotik ateratzeko zailtasunak.
- b) Ekidin ezineko ondorio ekologiko dramatikoak.
- c) Energia berriztagarrietan gehiago inbertitzea.

20. Zer dio Jevons Paradoxak?

- a) Ekoefizientziaren hobekuntzak energia-baliabide gehiago kontsumitzea ekarri duela.
- b) Energiaren kontsumoa murrizteak aberastasun-materialak gehitzea eragin duela.
- c) Energia gutxiago behar izateak asko lagundu duela ekoefizientzia hobetzen.

21. Zer uste du Azkarragak ekonomiaren hazkunderaren eta klima-zainketaren arteko erlazioaz?

- a) Bateriaezinak direla, Txina eta beste herrialde batzuen aberastasuna Europatik inportaturiko produktuez lortzen baita.
- b) Bateriaezinak direla, nahiz eta europarron ekonomia-eredua zein bizi-ohiturak aldatu.
- c) Bateriaezinak direla, norbere ongizatea hurkoarena kaltetuz lortzeari ez baiteritzo bidezkoa.

22. Aurrera begira, zer proposatzen du?

- a) Ekonomiaren ikuspegi globala aldatzea, gaurdainokoak erabat bazter utzi gabe.
- b) Ekonomia kapitalistak eragindako kalteak konpontzeko, molde berriak abian jartzea.
- c) Gaur egungo ekonomiaren funtzionamendua aldatu gabe norabide berria hartzea.

23. Zer dio Azkarragak energia-ereduen inguruan?

- a) Energia eta material kontsumoa jaisteko, ez dagoela erregai fosilak lur azpian ixtea baino.
- b) Energia fosilen ereduak zokoratu aurretik, beste eredu batzuetan inbertitzen hasi beharra dagoela.
- c) Energia gutxiago kontsumitzeko, lur azpiko iturri naturaletan desinbertitzen hasi behar dugula.

24. Klimaren azkia konpontzeko, zer eskatzen dio jendarteari?

- a) Ekonomiari bere kasa funtzionatzen utzi eta kontsumo-eredu berriak sortzeko.
- b) Energia-eredu berritzaileak biziera kontsumistaren aurretik jartzeko.
- c) Mugarik gabeko ekonomia-hazkunde soila desiratu beharrean, oreka bilatzeko.

25. Zeinek laburbiltzen du egokien Joseba Azkarragaren iritzia?

- a) Klima-aldaketaren zurrumbiloan ez sartzeko, erregai fosil gehienak bere horretan utzi beharko genituzke, zorupean, horrela lortuko baitugu kontsumismoan oinarrituriko bizitza-estiloaren kontra egitea.
- b) Gizadiak arreta handiagoa jarri behar die ingurumena babesteari eta ezberdintasunak gutxitzeari; eta, horretarako, kontsumismo zentzugabearen aurkako eta energia berriztagarrien aldeko apustu sendoa egin behar du.
- c) Bateragarri egin daitezke hazkunde ekonomikoa eta iraunkortasun ekologikoa, baldin eta energiarekiko dugun mendekotasuna gainditu eta munduaren egoera sozioekonomikoa sendatzeko gai bagara.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu **gaia** eta eskatzen zaizun **testu mota**.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - eskatutako guztiari erantzun diozun eta nola: egokitasuna
 - ideiak garbi adierazi dituzun: koherentzia eta kohesioa
 - euskara nola erabili duzun: zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.

Gutxienez 250 hitz idatzi behar dituzu.

Oharra: **asmatu izenpea** anonimotasuna gordetzeko

GAIA: Azkenaldian, gorabehera batzuk tartean, arloak bezeroei eskaintzen dien zerbitzua ez da beti bezain ona izan. Arazoa aztertu ostean, zenbait jardunbide hobetzeko, langileen prestakuntza eguneratu beharra sumatu duzu. Lan-taldeko arduraduna zarenez, zeuri dagokizu langileei horren berri ematea.

Idatzi eskutitza zure ardurapean dauden langileei, alde batetik, bizi duzuen egoerak eragiten dizun kezka eta egonezina adierazteko; bestetik, zure ustez arloan dituzuen gabeziarik handienak zein diren azaltzeko; eta azkenik, ikastaroa martxan jartzeko arrazoiak eta ikastaroaren helburu nagusiak argitzeko.

2. ariketa: Idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu.
Bat aukeratu eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **iritzi-artikulu**a idatzi behar duzu.
- **Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu.
 - Iritziak **azaldu** egin behar dituzu.
 - Ideiak **garatu eta lotu** egin behar dituzu.
 - Ezin dituzu hitzez hitz kopiatu lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenetako esaldiak.

TESTU AIPAMENAK**1.****CANNABISAREN LEGALIZAZIOA, NOIZKO?**

Zergatik da ilegala cannabis-a, eta tabakoa eta alkohola ez? Tabakoak eta alkoholak ez dute erabilera terapeutikorik eta jendea hiltzen da bien kontsumoagatik. Cannabis-a, berriz, funtzio terapeutikoak izan arren, ilegala da.

Marihuana legala izan behar da, askatasun pertsonalagatik batetik, eta, bestetik, debekuak ondorio txarragoak dituelako baimentzeak baino.

Gero eta herrialde gehiagotan da legala, modu batera edo bestera. Eta 2015eko Uruguaiko legedi berriak itxaropena ekarri digu legeztatzearen aldeko: posible da arazorik gabe legeztatzea, kalitatea igo eta trafikoko beltza borrokatzeko.

Etxean, Eusko Legebiltzarreko Osasun eta Kontsumo batzordeak kalamuaren kontsumoa arautzeko "pauso sendoak" emateko eskatu zien 2016an Espainiako gobernuari eta Justizia-administrazioari.

BARRIUSO, Martin. Zuzen, 2016ko iraila. Egokitua

2.**ETXEGABETUEN PISUAK SALGAI**

Banketxeek hipoteka bereziak eskaintzen dituzte saldu ahal izateko finantza-krisian eragin zituzten etxegabeteen bidez lortutako pisuak. Higiezin-burbuila lehertu aurreko egoerara itzuli nahi dute, etxebizitzak erosteko eta ez alokatzeko kulturara. Horretarako, herritarren konfiantza berreskuratu behar dute, krisi urteetan Estatuan 200.000tik gora kaleratze egon baitira.

Krisia hasi aurretik, tasa aldakorreko interes-maila baxuak eskaintzen ziren jendea hipotekatzea sustatzeko, baina Euriborraren igoerak hasieran ordaintzen denetik bikoitzera igo dezake ordaintzen den kopurua.

Orain, hipotekak leuntzea da estrategia, Euriborraren balioa interes-maila baxuan eskainiz edo etxebizitzaren balioaren % 100eko finantziarioa proposatuz. Banketxeak pisuaren %100 ordaintzeak badu bere ifrentzua ordea, interes gehiago eta, beraz, pisuarengatik gehiago ordaintzea.

RAMIREZ, Xalba. Argia, 2017ko abuztua. Egokitua

3.

GELARIK GABEKO IKASGELA

Mundua aldatzen ari da eta gero eta ohikoagoa da edukiez hitz egin beharrean kompetentziaz hitz egitea, hau da, arazo jakin bati eman beharreko irtenbidea bilatzeaz eta hausnartzeaz. Horregatik hitz egiten da gero eta gehiago ikasketa kooperatiboari buruz, eta horregatik ari dira eskola asko ikasleen autonomia lortze aldera lan egiten. Horretarako, eskoletako eraikinak ere aldatzen ari dira, arkitektura ere hezkuntza-prozesu horretan ezinbesteko elementua izan daitekeelako, betiere hezkuntza-proiektua baldin badauka atzetik.

Argi dago, gaur egun, ikasleek izan behar dutela ikasketa-prozesuaren erdigunea. Ikasleek elkarri laguntzea da helburua, era horretan norberaren autonomia ere garatzeko. Eta, hain zuzen ere, gelak hezkuntza hobetzera bideratuko dira, ikasgela moldagarriagoak eta malguagoak sortuta.

MUÑAGORRI, Lander. *Berria*. 2017ko urria. Egokitua.

5.

**EPAITEGI TASEK GARESTITU
EGIN DUTE JUSTIZIA**

Justiziako eragile guztiak aurka izan arren —Espainiako epaileen organo gorenak (Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia) ere aurkako informea egin zuen—, Espainiako Gorteek onartu egin zuten Justizia Ministerioak prestatutako tasa judizialen gaineko erreforma. Horrek seguru asko izan dituen eraginez ohartarazi dute eragile haiek, esanez justizia administraziora jotzea galarazi diola jende gehienari. Eragina zabala da, klase ertainetik behera.

Orain, norbanakoek ere ordaindu behar dituzte tasak. Bi motakoak dira: finkoak eta aldakorak. Finkoak, orain, 50 eta 750 euro artean garestiagoak dira, eta berdinak dira denontzat. Salbuespen bakarrak bi motatako erabiltzaileak dira: batetik, doako justizia-zerbitzuaren onuradunak; eta bestetik, ordena penaletik doazenak.

KORTABARRIA, Leire. *Debagoiena*, 2012ko azaroa. Egokitua

4.

JUSTIZIA KLIMATIKOA

Klima-aldaketaren borroka irabazteko, “Sistema aldatu, ez klima!” da lelo berria, eta Justizia klimatikoa, berriz, paradigma: herrialde garatuetan isurtzen dugu CO₂aren zatirik handiena (batez ere AEBn), baina garapen-bidean dauden herriek sufritzen dute horren eragina. Han, urakanak eta lurrikarak; han, itsasoaren maila igotzearekin desagertuko diren uharteak edo haziz doazen basamortuen inguruan dauden bizitokiak.

Paradigma berrian ez ditugu agintariak aurkituko: ikusi bestela nola irten den Trump Parisko Itunetik edo zertan den Kyotoko protokoloa. Borroka honetan, beraz, herritarrok zerbait egiten hasi behar gara, mobilizatzen, kontzientziatzen, eta gutxiago kontsumitzen, ezin diogulako eskatu Indiako inori ez dadila autoan ibili.

<ehu.eus>, 2015eko abendua. Egokitua

6.

**NORABIDE ANITZEKO
HARREMAN ESTRATEGIKOA**

Kirol profesionalaren eta administrazioaren arteko lotura garai ez hain urrun batean estuagoa zela diote askok, krisiaz geroztik gizartea eta klase politikoa ez daudela prest edozein inbertsio onartzeko, lehentasun garrantzitsuagoak badirela-eta. Oparoaldi urteak pasa omen dira jada. Baliteke, baina harremana indarrean dago oraindik, intentsitate apalagoarekin azaleratzen bada ere. Laguntza publikoak bide desberdinetatik heltzen dira: zuzeneko diru-partidak (babesletzak, unean uneko kanpaina instituzionalak edota azpiegituren finantzaketa), abantaila fiskalak, instalazio publikoen erabilera (ia) eskusiborako alokairu irriarriak, higiezinaren espekulazioa eta abar. Baita Euskal Herrian ere. “Ez egin demagogiarik”, entzungo duzue hala ere laguntzen egokitasuna zalantzan jarriz gero.

TORNER, Jon. *Larrun*, 2016ko urria. Egokitua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1. ariketa:** txertatu testu zatia.

■ **Irakurgaia:** «POLITIKA PUBLIKOEN EBALUAZIO ZEHAZTUGABEEN ARRISKUAK»

Hutsuneak	1.	2.	3.	4.	5.	6.	7.	8.
Testu zatiak	D	I	A	F	B	G	C	E

Soberakoa	H
-----------	---

■ **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «SAREAK SUTAN»

9.	C	10.	A	11.	A	12.	B		B
	C	15.	C	16.	A	17.	B		

■ **3. ariketa:** aukeratu erantzuna.

■ **Irakurgaia:** «ATERABIDERAKO ZENBAIT OINARRI»

18.	C	19.	B	20.	A	21.	C		B
23.	A	24.	C	25.	B				